

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, UDAL HARREMANEN ETA BERDINTASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren 20an hartutako erabakiaren laburpena: 2025ean ingeleseko, frantseseko eta alemaneko C1 mailako titulu ofiziala lortzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzen deialdiaren oinarriak Vitoria-Gasteizko gazteentzat

BDNS (Identif.): 851167.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/851167>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldaturik dauden 18 eta 30 urte bitarteko gazteak

Bigarrena. Helburua

Vitoria-Gasteizko 18 eta 30 urte bitarteko gazteei ingeleseko, frantseseko eta alemaneko C1 titulazio ofiziala lortzeko tasak ordaintzeak eragindako gastuen zati bat ordaintzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren 20an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 20.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei lanegun laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 20a

Alkatetzaren, Udal Harremanen eta Berdintasun Saileko Zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIERREZ